

BIGARREN HITZALDI NAGUSIA

📅 Azaroak 13, ostirala

🕒 09:00-09:45

Gizarte erantzukizuna ezagutzaren unibertsalizazioan: jendartea entzun eta elkarrekin erantzun

XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propioa emango dien eraldaketa-mugimendu bat sustatzeko egitasmoa da Debagoiena 2030. Askotariko eragile eta norbanakoen lankidetzatik, metodologia, proiektu eta ekimen ezberdinak bultzatuz eta konektatuz, erronka horietan inpaktu esanguratsua izan nahi duen sarea sortzen ari da. Horrela, eraldaketarako gakoak ezagutzeko, eta aldaketarako palanka izan litezkeenak identifikatzeko, berrikuntza sozialean oinarritutako metodologia erabiltzen ari dira. Halere, lehen-lehenik entzun nahi izan dute, eta elkarrizketak dira entzute horren oinarrian erabili diren tresnak. Entzute-ariketan euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruko hainbat hari-mutur ere jaso ziren eta izan da bertan agertutakoari erantzuteko dinamika komunitariorik ere. Txatxilpurdi elkarteak izan da, besteak beste, entzute-ariketa horiek egin dituenak, eta prozesuaren berri emango du. Halaber, prozesuaren berri ematearekin batera, entzundakoak aintzat hartuz martxan jarritako hainbat egitasmo eraldatzailearen nondik norakoak partekatuko ditu.



AMAIA ETXABE GOIKOETXEA

(Arrasate, 1988)

Amaia Etxabe Goikoetxea Eraikuntza Zibileko Herri Lanen Ingeniari Teknikoa da, baina hezkuntzaren eta kulturaren eremura jauzia egin zuen. Lehenik, Hizkuntzen Irakaskuntzan Gaitzeko Unibertsitateko Masterraren bidez, eta, ondoren, Lehen Hezkuntzako Irakasle graduaren bidez, bai eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioan Aritu Tituluaren bidez ere.

Horietaz gain, hezkuntzari, komunitateari eta eraldaketari buruzko hamaika ikastarotan eta jardunalditan hartu du parte.

Lan-eskarmentuari dagokionez, irakaskuntzan hasi bazen ere, 2013tik hona Txatxilpurdi elkartean ari da. Lehen bi urteetan berramesten saileko teknikari, eta 2015etik hona elkarteko koordinatzaile orokorra da.